

## Zentzumenekin ebaluazioa



**Dinamika-mota:** Hausnarketa (SHAILAK)

**Zer lantzen da:** Sentimenduak, konfiantza...

**Adina:** Adin guztiak

**Iraupena:** 30 minutu

**Partaide kopurua:** Talde handia

**Materiala:**

Ez da ezer behar

### Azalpena:

Borobilean jarrita, taldearen erdian zenbait objektu jarriko dugu (pintzela, lixa...), eta hainbat jaki (limoia, txokolatea, gozokiak...). Objektu eta jaki horiek eta gorputz-espresioa erabiliz, gure sentimenduak adieraziko ditugu, adibidez aurretik egindako dinamika batean nola sentitu garen. Hori txandaka egingo dugu. Sentimenduak azaltzen hasteko prest dagoenak begiak estaliko dizkio bere ondoan dagoenari. Ondoren, erdiko objektu eta jakietatik nahi dituenak aukeratuko ditu (ez da derrigorrezkoa objekturik aukeratzea, gorputz espresioa bakarrik ere erabili daiteke), sentimenduak adierazteko balio diotenak, eta begiak estalita dituenari emango dizkio eskura, ukitu ditzan, usaindu... Bururatzen zaion guztia egin dezake, itsuak ulertu dezan bera nola egon den aurreko saioan, nolako sentimenduak izan dituen, hitz egin ez beste guztia egin dezake, isilik egon beharko baitu. Begi itsuka dagoenak, berriz, hitzez adieraziko ditu bestearen sentimenduak, ulertu duenaren arabera. Ondoren, isilik aritu denak azalduko du itsuak asmatu duen edo ez, zertan eta abar.

Horrela segituko dugu, guztiok parte hartu arte.

## Aldaera:

Objektuak, jakiak, mugimenduak, soinuak... ez daude alde z aurretik zehaztuta, libre da horien aukera; beraz, ekintza gidatzen duenak erabakiko du zer erabili.

Isilik egotea ere aukera bat da, soinuak erabili daitezke sentimenduak adierazteko.